


Laxoa

Pilota yokoa da euskaldunen artean maitena. Gure eskualdean ere eta aspaldiko denboretan pilotak bazuen erreikete eta «Laxoa» zen yosketa nagusia. Oraindik ere «Laxoa» bizirik dago eta urtero egiten dira Txapelketak eta ikusten ditugu baztandarrak eta Malderrekarrak gudu gorrian partida interesgarriak egiten dituztela beren ahalmenak erakutsirik. Jarrai hortan.

Lehenagoko denboretan «Laxoa» edatua zagon gure eskualde guzian eta mendi zelaietan, artzain eta baserritarren artean sekulako partidak yokatzen zituzten. Baztango mendi-zelai hoietan ikusten ditugu han-hemenka «Pilota-soro» deitzen diren zelaiak, hainbertze partida interesgarrien lekuko bezala. Aspaldiko denbora haietan ez zen Txapelketak egiten baina bai desfiozko partida izigarriak sosa ere purrusteka zabilhela, Pilotari onen arteko partidak onak izaten ziren hain segur, baina pelotari xumeen artekoak ere ez ziran txarrak. Adiskide batek erranik aipa dezadan aspaldiko denboretako gertakizun bat.

Errazuko Gorostapolo hauzoko plazan bazuten desfiozko partida bat antolatua, erratzuarrak eta alduarrak nor-gehiagoka. Aldudar pilotariak etorri ziren Gorostapolora eta hantxe erratzuarrak haken zain. Yendea ere bildu zen desfiozko gudukaldi hori ikusi beharrez. Partida yokatu aintzin aldudarek nahi omen zuten lehenik yoaldi batzuk egin plaza ezagutzeko.

Hasi omen ziren sakeak eta erreferak egiten eta holaxe yoaldi



batzuk osatu zituzten. Erratzuko pilotariak ikusi zutenean aldudarren yokatzeko moldea eta heken yoaldi biziak, izitu ziren eta ez zuten partidik yokatu nahi, aise galduko zutela eta desfioa urratu zuten. Eztabaida franko izan omen zituzten sekulako kalapitan eta aserre, baina dudarik gabe lehenagotik ezpaitzuten seinaleirik bota, beti ere partida desegin zen. Aldudarek kolera gorrian itzuli ziren beren herrira eta bidean zoatzilarik, arkitu zituzten iretze meta guziak errekan beiti bota omen zituzten eta holaxe akitu ziren egun artako espantu guziak. Gertakari bitxiak lehenagoko historio zaharrak.

M. Izeta

Noizkoak ote gara ba euskaldunok?

Bartzelona'ko Unibersitateak egin du orain, galde orri erantzun naiez ikerketa luze bat. Izen ere beti, baña joan den mendearen asieraz gero bereiziki, mundu guztiko jakintsuak dabilzkigu erantzun ori aurkitu naiean. Izugarri kezkarriak gera euskaldunok jakintsuentzat. Orrela izen gara beti. Eta, gaur-egun, seguruaski iñoz beño geiago.

Gure izkuntza da jakintsuei zearo arrigarri eta kilikagarri gertatzen zaiena: Euskera.

Izan ere! Ain da ederra, ain da polita gure izkuntza..., ain antziña antziñako doiñu miresgarria dakarte bere itz sendo goxoek..., ain ederki eratua du bere aditzaren, ots, bere berboaren joku zoragarria..., ain aspaldi-aspalditik datorrelaren itxura du preistoriatiko aizea dakarren bere egitura guztiak... Noiz sortu zen? Noiztik ote dator gure Euskera?

Orain dela bost mila urte sortu zela, diote gaur-egungo jakitunek: Kris'aurreko 3.000'garren urtearen inguruan. Ez da gutxi! Ez du Europa'k bere zabaltasun osoan orrelako beste izkuntza bat. Bañan, aurrera joz, beste batzuek, orain dela 10.000 urte sortua dela diote. Tokitara goaz!

Baña, oraindik aurrerago joz, -«Aizu, Joxemiel, -galdetu nion bein, direla amarrenbat urte, On Joxemiel Barandiaran' i Atan'go «Sara» izeneko bere baserrian-, gure leize-zuloetako artz, bisonte, zaldi ta beste abereak «Magdalenien» esaten zaien aroan margoztu zituzten kromañondar aiek euskeraz itzegiten ote zuten?

- Bai -erantzun zidan berak-. Guk ez genieke ulertuko. Baña oartuko giñake euskeraz ari direla.

Ori naikoa ez ba'litz, Euskerak ez du mundu guztian bere kideko izkuntzarik. Bakarra da. Beste izkuntza guztiak, familietan bildu oi dituz-



te jakintsuek. Euskera, ordea, ezin dezakete iñongo familietan sartu. Izkuntza bakarra da. Ez du seniderik iñon. Ezta aiderik ere. Orregatik «Lengua Isla» esan oi diote: «Izkuntz Bakartia».

Ez da arritzekoa, beraz, jakintsuek izkuntz ori itzegiten duten jendeei so-egiten asi izatea. Misterioz betetako izkuntz miresgarri ori itzegiten duten oiek... Nor ote dira?, zer kastakoak?, nondik etorriak, norengandik sortuak?, eta noiz?

Erantzun asko eman zaizkie galdara oiei, Adan eta Ebe'k euskeraz mintzatzen ziralako kontu ura bezalako kontuak baztarrean utzita ere. Itxasoan murgildu omen zan Atlantida artatik gatoztela, esan dute batzuek. Beste batzuek, berriz, Kaukas-Mendiko lurretatik.

-«Ori egia ote da?» -galdetu nion beste bein Barandiaran berari.

-«Kaukasotik Euskalerrira aiña bide dago -erantzun zidan ark- Euskalerritik Kaukasora». Gu andik etorriak gerala esaten den bezalaxe esan diteke angoak emendik joan zirela.

Ez dago gaizki esana, batez ere orduan, -gure leize-zuloak margozt-

tu zirenean-, kulturik aundiena emen zegoala gogoratzen ba'dugu. Kultura arri, «Basque-Cantabrique» esan zion bera lenen aztertu zuan «Abate» frantziarrak. Obeki Bernardo Estornes Lasa'k, «Cultura Protobascónica».

Orain, Bartzelona'ko Unibersitateak, «los vascos constituyen una población única y diferenciada» esaten digute. Eta «emen giñaudela» Dirala ogei mila urte». Ez dute beren azterketan, ezer aundirik ikasi. Nondik etorriak geran ez dute esaten. Arazo aun, Arantzadi, Barandia-ran eta Eguren'ek garbi utzia da: Euskaldunon enda edo kasta emen bertan sortua dela, gure aurretik emen bizi-tu ziran kromañondarren «eboluzio» edo aldakuntzari eskerrak. Kromañondarren soña, millaka urteak-zear, poliki-poliki gertatu zitzaizkion aldaketa txikiak bidez, gaur-egungoon antzeko euskaldunen soña biurtu zan. Biurketa-gintza ori, bukatuak zegoan Kris'aurreko 3.000'garren urterako, eta, Barandiaran'ek esanaren aurara, euskeraz itzegiz joan zan biurketa ori egin zan denbora guztian.

Latiegi'tar Bixente

Berri ona

Gorputza banatua. Odola isuria

«Au nere gorputza da. Au nere odola da»
(Mk.14,12-16;22-26)

JESUS-en lekukotasuna historian zear oroimenari esker bizi dugu: «egizue au nere oroigarri». Jesus, ordea, liturgian bakarrik ez da aditzera ematen. Aren testigu zintzo izanez ere bai, noski.

Argi eta garbi ikusten dugu munduak ez duela Aren bidea jarraitzen; beraz, Jesus-en izatea eta Arek errandako itzak guztiz zorrotzak gertatzen zaizkio gure gizarteari. Federik ezak jotako gizartea da gurea, Euskalerriko Gotzaiek diotenez. Auxe da egiten duten galdera: «Nolako gizakia sortu nai dugu, eta nolako gizartea eratu? (22 z.)

Federik ezak gure gizartean artu duen erabateko zabalera onetan, guraso ugari dira seme-alabak lenengo Jaunartzera eramango dituztenak.

Orregatik, irakurle leial zaitudan orri, Kristoren Gorputz eta Odol Santuak ospatzen dugun festa-buruan, tori onoko burutazio edo gogoeta batzuk:

1.- Gurasoak aurraren bataioa eskatzen duten unetik kristau eziketa-ekin konprometitzen dira; beraz, semearen edo alabaren katekista nagusiak dira.

2.- Ondorioz, Elizkide direla agertu dezatela semearen edo alabaren lenengo Jaunartzean, dagokion katekesi eziera eman eta erakutsiz.

3.- Jaunartze eguna ez dedilla umearentzat katekesiaren amaiera izan; gurasoen babesean Elizarekiko konpromisoaren asiera baizik.

4.- Aurrak izan duten katekesia ez da Jaunartzearen «preparazio» soilia, fede-eziketaren prozesuaren abiapuntua ondorengo sakramentuak artu eta bizitzeko.

5.- Lenengo Jaunartzea egin duen aurrak uler dezala Eukaristia egitea beartsuekin bat egitea dela, gurasoen eredu kontuan izanik.

6.- Aurrak otoitza egiteko aukerak izan ditzala; etxean, gurasoekin eta familiarekin; elizan, kristau-elkartearekin. 7.- Jaunartu duen aurrak jakin dezala Jesus dela eredu bakarra eta Ari egin bear diola kaso.

8.- Lenengo Jaunartze eguna egia eta maitasunaren eguna izan dadilla «erregaloak artzea» beartsuekin daukaguna eta gerana «banatzea» biurtuz.

Orrela, jokutzen duenak bakarrik egiten du Jesus-ek agindutako «oroigarria». Eukaristia egiteak zuzentasunaren eta justiziaren emaitzak gauzatzea erran nai du.

Maian eseritzea, ogia banatzea da. Gose eta egarri denari jateko eta edateko ematea. Otorduan ezin dezakegu iñor baztertu.

Artzalluz'tar Joxemari


Beran Labiaga ikastola

Nafarroa'ko Ipar aldean, Sartalde-tik, Larun'pean Bera delako erria datza; 3.500 biztanle ditu eta 43 lantoki berexiak. Orain ikastola ederra dute, erriarentzat bitxia. Ikasleak iru urtetik amalau bitartekoak biltzen dituzte; denak berreun neska-mutil dire. Irakasleak berriz amaia dotozkie; lau gizonezkoak, zazpi andereño, guzti oietatik zortzi nafarrak, lau Bera'tarrak. Iru-lau urteko ikasle ttipiak Lagunetxean (Agestaetxean) daukate; denera 56 aur. Aundientzat berriz Alzate'n, Eskolapiotan dago ikastetxea.

Zuzendaria arkitu nuen; Erramun Martiarena, Irun'tarra, ogeitamar urteko gizon gaztea. Ikastolaren arduradun bezala urte bat darama. Goi maillako Biologika ikasketak amaitu zituen.

Gurasoak dire ikastolaren zuntzi mardulak. Elkarte bat sortuta, bi mila pezata ordaintzen dizkiote lagunarteari illero. Berez ikastola gurasoen elkarteara da ta agintarien laguntza ere jasotzen dute. Nafarroa'ko ikastolen federazioarekin arremanetan daude. Oraingo elkartearen buru Helena Santesteban da. Ikastolak erriarekin batean lana egiten du. Gauza aunitzarako, bata bertzearekin eskutik dabilta; Olen-tzoro dela, ingar arroltz eske ta abar.

Gaur gure ekintza berexi batean ongi sartuak dabilta; 1994'garren urteko «Nafarroa Oñez» eguna. Bera'n izan den irailaren emezortzian. Biltzen den dirua Bera'ko ikastolari eskuratuko diote. Aur ttipiak sartzeko, zortzi gela geiagoko etxe berria bear dute egin eta orduan Alzate'ko etxean bi urte geiagoko gazteak artuko dituzte. Etxea egiteko lurra Errikoetxeak ematen die. Dena dela, etxe berria altxatzeko irurogei milloi bear.



Jo ta ke, gai oneri eutsiaz Jose Angel Oiz irakaslea arkitu nuen; berez, Donostiara da, ogeitasei urteko mutila, Filosofia lizenziatura dauka amaitua. «Egunkaria» delako izparringian bi urte ditu egiñak lanean. Orain ikastolan lanetik lauterdietan atera bearrean, gabeko amarrak arte dabil gauzak antolatzen, zuzendari ta gurasoekin batean. Denentzat naiko lan alkandorak gertutzen, ari-keta berexiak aurreratzen.

Oraingo ekintzetan sartuak dau-dela, aintzinako urrats nagusia, 1983'garren urtean Bera'n egin zutena, «Nafarroa Oñez eguna» ezin aztu. Orduan ikastola aunditzen zi-joan eta Errikoetxeak billera berexi batean Eskolapio'ko etxea uztea erabaki zuten. Etxea berritzeko lau milloi bear zituzten, baita urte artan ere denak jaso.

Ikastolaren asierak dauka garrantzi osoa; 1974'garren urtean sortu zen. Nola? Bera ta Lesaka'ko ikastolak urte berean asi ziren. Orduan Bera'n euskal giro kaxkarra zegoen. Erriko eskolan, Maristetan, Monje-

tan erderaz bakarrik ikasten zen. Giro illun ori aldatzeko urrats batzuek ematen dituzte. Bigarren urratsa: jaialdi onen ondotik euskararen alde zeregin bururatzen zaie. 1973'garren urtean, euskarazko ikastaroa edo gauskola asten da. Gabeko zortzietan, lau talde, irurogei ta amar ikaslekin asten dire. Irakasleak denak bertakoak: Espe ta Begoña Aranibar, Marian Irazoki ta apezta Patxi Iñigo.

Iruugarren urratsa: gazte talde bateri ikastolaren asmoa sortzen zaio. Itzalbaita etxean billerak egiten dituzte; bazkideak Josu Goya, Bixente Taberna, Isabel Ordoñez, Espe ta Begoña Aranibar dire. Makina bat aldiz bildu ziren Jose Goya euskalzale sutsuaren etxe ortan. Gero, billera batera, Maristen jantokian, gurasoak banaka billatzen eta deitzen dituzte. Itzaldia ematera aietzek dotoz: Karlos Garaikoetxea, Patxi Zabaleta, Jose Maria Satrustegi, Josu Atxa.

Laugarren urratsa: Jose Sarobe erretorearen laguntzarekin, agintari-ek Errikoetxean bertan gela bat ikastola irikitzeke eman zien. 1974'garren urtean emezortzi aur asi ziren, Berroetako Pili Gantxitorena andereñoarekin. Irureun pezata ordaintzen zuten illero aurrak.

Bortzgarren urratsa: ikastolari laguntzeko bazkude bat sortu zen. Pello Ordoñez Irazoki arduraduna bezala jarri zuten; aita eltzetua du, ama berriz Balkezene'ko alaba, Bera'ko baserrikoa. Geroago Pellok ikastolaren zuzendari bezala urte aunitz egin zituen.

Ikastola aunditzen zijoala tokia aldatu zuen: Errikoetxetik Agestaetxera, andik Eskolapiotara.

Asiera onekin ikastolak era bat zuzpertz du euskara Beran.

Latxaga